

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN JARDUERA (2000. URTEA)

Gaur egun ohikoa da ia elkarrizketa guztietan COVIDaren gaia ahora ekartzea. Gauzak horrela, guretzat ere ezinezkoa litzateke 2020an Serantes Kultur Aretoak egin dituen jardueren oroitzatxosten hau idaztea, antolatutako jarduera guztiek COVID-19ak ekarritako pandemiaren ondorioak jasan dutela adierazi gabe. Zoritxarrez, aurten ere antzera gabiltza, izan ere, 2021eko hasierako hilabeteotan pandemiaren eragina pairatu dugu eta ziur gaude datozen urteotan ere pairatzen jarraituko dugula gehiago edo gutxiago.

2020a ohiko dinamikan hasi zen, azken hamabost urteon gisan, eta bazirudien ekitaldi osoa halatsu joango zela. Baina alarma egoeraren lehenengo dekretua atera zenetik, ezer ez da hasieran pentsatu bezala gertatu. Jarduera erabat etenda egon zen uztaile arte, eta berriro abian jarri zenerako murrizketa eta guzti jarri zen abian. Gainera, araudian gorabehera ugari gertatu ziren, ia egunetik egunera aldatzen baitzen aforoaz, ordutegiez eta egin zitezkeen jarduera-motez agintzen zena. Horren ondorioz, Autonomiadun Erakundea etengabe egon da ziurtasunik gabe lanean, planifikatutakoa burutuko ez zen beldurrez eta osasun-larrialdiaren bilakaerak etengabe aldatzen zituen kontingentzia-planak eginez.

Adierazi beharra dago dinamika horretan eginahal guztiak egin ditugula dena behar bezala joan zedin, betiere SKAk dituen eskumenen barruan eta agintariek ezarritako osasun-baldintza guztiak aintzat hartuta. Horrela bada, hainbat plan bertan behera edo mugatuta geratu dira egoera dela-eta. Izan ere, hilabeteetan diseinatutako jarduerak bertan behera utzi, moldatu, aldatu edo berregiten ibili gara... Horixe izan da gure lan-dinamika azken aldi honetan, osasun-agintariek ezarritako mugak kontuan hartuta ere, sarritan, dena prest zegoenean, prebentzio-neurriak etengabe aldatzeak programatutakoa ere aldatu edo bertan behera uztera behartu gaitu eta.

Orokorrean eta pandemia prebenitzeko emandako neurrien dekretuarekin bat eginez, SKAk jarduketa-protokoloak egin eta ezarri zituen bere espazioetan, etengabe egokituz joan izan direnak. Bestalde, zenbait batzar egin ziren jardueren etenaldiaren eragina jaso zuten elkarteekin neurriak elkarrekin koordinatu ahal izateko.

Esparru orokor honetan ahalegin handia egin da oinarri izan ditugun honako hiru ideia hauen inguruan:



1.- Espazio horiek erabiltzen dituzten taldeek jardueraren bat egiteko bidea ematea; kontuan hartu behar baita, euren lana tarte luzez eteteak oso ondorio txarrak ekar litzakeela, pandemia amaitu eta haratago ere pairatuko liratekeenak.

2- SKAekin lan egiten duten sektoreen lanari ere bidea ematea (zinebanatzaileak, eszena-sektorea, kulturarekin zerikusia duten enpresa osagarriak eta abar), den-denen diru-sarreraren % 60, gutxi gorabehera, tokiko administrazioak egindako kontratuetatik dator eta.

3.- Herritarrei, ahal dela, zerbait eskaintzea aisialdi arloan. Pandemiak bizimodua goitik behera aldatu digu, eta kaltea zertxobait arintzen lagunduko zuen zerbait eskaini nahi genuen.

Adierazi bezala, egindako lan horrek ez du beti nahi bezain emaitza ona ekarri, lehenetasuna, logikoa denez, osasun kolektiboa izanik, gure jarduna ezin izan da guk pentsatu bezala gauzatu, herritarren osasuna zelako beste ezeren gainetik garrantzitsuena.

Azkenik, adierazi nahi dugu egoera hau ekidin ezina izan dela, eta ahalegindu garelako hirugarrenek ez zitzaten ondorioak pairatu. Horrela, ez ziren Autonomiadun Erakundeak zerbitzu-enpresekin zituen kontratuak eten, eta SKAren bazkide-txartelaren onurak 2021eko apirilera arte luzatu ziren. Horrez gain, itzuli egin da beste herri batzuetako erabiltzaileek erositako sarreraren truke ordaindutako dirua, itxiera perimetrala edo etxeratze-agindua tarteko, sarrerak erabili ezin izan direnean. Are gehiago, aintzat hartu dira kutsatzeko beldur zirela-eta, sarreraren truke ordaindutakoa itzultzeko eskatu duten herritarren eskaerak, horretarako eskubiderik duten ala ez argi ez badago ere.

Testuinguru honetan egindakoaren emaitza guztiz bestelakoa izan da aurreko urteekin alderatuta, datuei buruz hona dakarkigun analisia irakurrita antzeman daitekeenez:

ESZENA PROGRAMAZIOA

2020an 2019an baino hiru ikuskizun gehiago eta 10 funtzio gehiago egin dira. Horrela gertatu da uztailean programatutako ikuskizunei esker (musika eta bakarrizketak), bai eta herriko jaien alternatiba gisa antolatu zen programa bereziari esker ere, jaiak bertan behera geratu baitziren pandemia tarteko.

Programatutako 52 funtzioetatik 11 baino ez ziren burutu pandemia baino lehen, eta hor 302 ikuslek hartu zuten parte batz bestea (2019an batz bestea 393 ikusle izan genituen); gainerako ikuskizunetan, berriz, 138 ikusle egon dira batz bestea.

Azken datu hori azaltzeko badira zenbait arrazoi, aforoaren muga, kutsatzeko beldurra eta itxiera perimetrala eta ordutegi-aldaketak tarteko, erabili ezin izan ziren sarrerak. Antzerki Jaialdian izugarri nabaritu zen hori eta oso oso zaila egin zitzaigun aurreko urteetako ikusle-kopurua berreskuratzea. Gaineratu beharra dago esandakoa ez ezik, gizartean beste faktore psikologiko batzuek ere izan dutela zerikusia horretan. Besteak beste, aipatu nahi dugu etxealdi luzearen ostean, herritarrek bizitza kalean gozatzeko zuten irrika ikaragarria eta eszena-ikusketak gune itxietan egiteak zekarren ziurgabetasun-sentsazioa. Azkenean, hori ere bideratu egin zen iazko amaieran, prebentzio-neurriak egonkortu zirenean eta herritarrek “Kultura Segurua” leloa benetakoa zela egiaztatu ahal izan zutenean.

2019arekin alderatuta, guztira 7.551 ikusle galdu ziren, hau da, % 46.

Azkenik, adierazi nahi dugu 2020an programatutako ikuskizun guztiak, aurtengo martxorako antolatuta zegoen opera izan ezik, beste data batzuetan ezartzeko modua izan ditugula 2020 eta 2021. urteetan; horrela, SKAk eszena-arten gune publikoekin hartutako konpromisoa bete egin du, eta ez ditu eman gabe utzi pandemiak kaltetu zituen ikuskizunak.

ZINE PROGRAMAZIOA

2019. urtearekin alderatuta, 2020an zine-ikusle gutxiago izan genituen SKAn. Izan ere % 57 ikusle galdu genituen, baina kontuan hartu beharra dago lau egunez baino ez dugula zabaltzen.

Edonola ere, zifra horiek Estatu osoaren zine-emanaldien zifren antzekoak dira, Estatu osoan ere % 73 ikusle galdu baitziren 2019an izandako kopuruarekin alderatuta.

Arestian aipatutako arrazoi orokorrak gorabehera, zinearen negozioan alde estrategikoa egon da eszena-arteekin alderatuta, iaz estreinatzea aurreikusita zuten produkzio arrakastatsu gehienak ezin izan direlako burutu. Izan ere, lehenengo etxealdiaren osteko hasierako hilabeteetako jarduerari eusteko, beste hamarkada batzuetako filmak berreskuratu behar izan genituen, uste genuelako adin jakin bateko publiko nostalgikoa pozik etorriko zela film horiek ikustera. Kontua zen ez zegoela estreinatzeko inongo materialik.

Gainera, zineman estreinatu beharreko zenbait film plataforma digitaletan estreinatu ziren eta horrek areagotu egin zuen ikusleen galera.

Beharbada, arlo horretan izan du pandemiak ondorio larriena. Eta ez bakarrik epe laburrean, bai orokorrean eta bai SKAren kasuan, itxialdiak bidea eman duelako gaur egun aretoko zinemak duen mehatxurik garrantzitsuena izugarri zabaltzeko, modu esponenzialean. Ondorioz, horrek aldaketak ekarriko

ditu kontsumo-ohituretan, gero eta bideratuago baikaude euskarri digitaletako eskaintzen erabilera indibiduala egitera, ordutegi mugarik eta bestelako muga fisikorik gabekoa bera. Horrek izugarri murriztuko du sektorearen gaitasun komertziala, bai eta ikaragarri aldatuko ere eskaintza eta eskaera binomioa.

Zine-klubari dagokionez, 2020an 3056 ikusle jaso genituen, hau da, 2019an baino % 60 gutxiago. Egiari zor, jakinarazi behar dugu 10 film baino ez genituela eskaini, 2019an baino 6 gutxiago.

Pandemia hasi aurretiko bost filmetan 455 ikusle egon ziren batz bestez; 2019an berriz, 485, eta pandemia osteko bost filmetan 155 besterik ez.

Gauza jakina da denetiko publikoa dugula zine-klubean, baina gehienbat jende nagusia bertaratzen da. Hori kontuan hartuta, eta jarduera udazkenean berreskuratu zen arren, kutsatzeko beldurra erabakigarria izan da kontsumo-mota horretan.

ERAKUSKETA GELA ETA INTERPRETAZIO ZENTROA

Iaz 10 erakusketa artistiko egin ziren eta horiez gain, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrarena. 2019an, berriz, 14 egin ziren.

Guztira 5938 lagunek bisitatu zituzten programatutako erakusketak, eta 2019an 11.295 izan ziren. Egia da Casa Torre jauregia itxita egon zen hilabeteen ostean, aforoa murriztu behar izan zela eta 12 lagunetara mugatu.

Bestalde, Interpretazio Zentroan 52 lagunek egin zuten bisita urtarril eta otsail artean, eta ordutik ez da berriro ireki, erakusketaren euskarriak aktibatzeke txartela erabiltzeak asko zailtzen duelako COVID garaiotan ezinbestekoa zaigun garbiketaren kontua. Gauzak horrela, erabaki zen gune hori administrazio-zereginetarako erabiltzea, enplegu-planetatik etorritako langileak Casa Torre jauregiko bulegoan pilatzea ekidite aldera.

ARETOEN LAGAPENAK ETA ALOKAIKUAK

Iaz SKAren hiru aretoetan zenbait elkartek, taldek eta erakundek antolatutako 35 ekitaldi eta jarduera egin ziren, 2019an, berriz, 54 izan ziren. Horietako bi alokairuak izan ziren. Guztira, 12.000 bat lagunek hartu zuten parte jarduera horietan. Adierazitako ia jarduera guztiak pandemia aurretiko hilabeteetan burutu ziren.

Bestalde, Kresalak 25 ekitaldi baino ez zituen jaso pandemia aurretiko hilabeteetan (2019an 108 ekitaldi egin ziren), gero itxita egon baitzen ezin

zuelako zerbitzu segururik eman COVID 19aren arriskuen aurrean. Adierazitako jardueretan 1500 bat lagunek hartu zuten parte.

Casa Torre jauregiko geletan, berriz, 283 bat bilera eta ekitaldi egin dira, nahiz eta pandemia tarteko, aforoa oso mugatuta egon den. Ekitaldi horietatik 40 alokairuak izan dira, gehienak jabeen komunitateen batzarrak, ezin baitituzte batzar horiek lehengo baldintzetan egin.

JAIK

2020an ohiko jai-jarduera erabat murriztu zen, izan ere, Inauterietako Jaitsiera egin, otsailak 29, eta bertan behera geratu zen jaietarako urteko programazioa. Jaitsierarako guztira 49 taldek eman zuten izena (2019an baino 10 talde gehiago), baina azkenean euria egingo zuelakoan bi taldek ez aurkeztea erabaki zuten. Guztira, 1.238 bat lagunek hartu zuten parte inauterietako jaitsieran, hau da, aurreko urtean baino 74 gehiagok.

47 horietatik 4 banaka edo bikoteka aritu ziren eta gainerako 43ak taldeka, gehienak oso jendetsuak. Batz bestea 30na lagunez osatutako taldeak izan ziren.

Gainerako jaiak, San Jorge, Kornites, Karmengo jaiak eta Sardinera Eguna, bertan behera utzi behar izan ziren, baina bai San Jorgen, bai Kornitesen eta bai Karmengo jaietan ekimen arinak egin ziren nolabait konpentsatzeko.

Korniteserako herritarrei eskatu zitzaizkien aurreko urteetako argazkiak bidal diezazkigutela sare sozialetan ikusgai jar genitzan. Horrela, ehunka argazki batu genituen, zeinekin bideo bat osatu eta sare sozialetan zabaldu genuen herritarrek ikus zezaten. Bestalde, San Jorge jaiak amaitu behar ziren egunetan ekimen bat jarri zen abian euskarri digitalean jai batzordearekin lankidetzan. Horren bidez herriko zenbait herritarrek etxean egindako grabazioak zabaldu ziren lehiaketa-formatuan, "Santurtzi Talent Etxean" jarri zitzaion izena. Ekimen horretan 16 lagunek hartu zuten parte, euren emanaldiak SKAk youtuben zabalduzako kanalean ikusgai jarri.

Uztailean, Karmengo jaietan kalejira bana egin zuten Erraldioen Konpartsak, Musika Bandak eta Txistulari Bandak "Santurtziko Nortasun Festa" izenburupean; eta horrez gain, SKAn zenbait musika-emanaldi egon ziren. Gainera, Mentxu herriko jaietako maskota ustekabean agertu eta herrian zehar ibili zen aurrera eta atzera autoz uztailearen 16an.

Adierazi beharra dago azken ordura arte aintzat hartu zela Karmengo itsas-prozesioa egitea, baldintza berezietan bazen ere. Izan ere, behar ziren baimenak eskura genituen, baina azkenean, San Jorge elizako arduradunekin

adostu zen pandemiaren egoerak ez zuela prozesioa egiteko aukera garbirik ematen, eta ez egitea ebatzi zen.

Neurri aringarri gisa, elizan Andra Mariaren irudia jarri zen erakusgai, eta herritarrek bisitatzeko aukera izan zuten segurtasun-protokoloa beteta, zeinaren diseinuan SKAk hartu zuen parte.

GABONETAKO JARDUERAK

Gabonetako jarduerak ere pairatu zuten Covid 19aren ondorioak Santurtzin. Hala ere, kontuan hartuta umeentzat duten garrantzia, Olentzeroren jarduna eta Errege Magoen Kabalgata bi bideotan grabatu ziren. Bideoak aldeztatik bidaltzea eskatu zuten familia guztiei helarazi zitzaizkien.

Bideoak urtero ekimen bietan parte hartzen duten herriko taldeekin lankidetzan egin ziren, Zugaitza dantza-taldearekin eta Mahastietako auzo elkartearekin hain zuzen.

Grabatutako bideoak whatsapp bidez bidali zitzaizkien familiek aldeztatik emandako telefono zenbakietara (bideo bakoitzetik 2.000 bat bidalketa egin ziren).

Pertsonaiek kamioiz egin behar zuten euren ibilbidea etxeratze-agindua baino lehen, nork bere egunean kalejiran, eta bien bitartean bideoak bidali nahi genituen. Baina abenduko dekretuak, zeinak besteak beste kalez kaleko jardura guztiak debekatzen zituen, eragin zuen ekimena bertan behera utzi behar izatea.

Azkenean, Zugaitza dantza-taldearekin lankidetzan, SKAn Olentzero Santurtzira heltzen ikusi genuen ordu erdiko eszena-ikuskizun batean. Lau emanaldi egin ziren eta 1.174 lagunek hartu zuten parte, gehienak herriko umeak.

BESTE JARDUERA BATZUK

Gauza jakina denez, asko dira SKAk herriko beste elkarte batzuekin lankidetzan urte osoan egiten dituen jarduerak. Iaz, ordea, bi baino ezin izan genituen burutu. Horrela, urrian Santurtzineren, Saregabe elkarteak antolatzen duen film laburren zine-jaialdiaren, edizio berria egin zen.

Jaialdia oso baldintzatuta egon zen COVIDarekin lotuta ezarritako protokoloak tarteko. Hala ere, aforo-mugak gorabehera, egin beharreko ekitaldi guztiak egin ziren. Gainera, berrikuntza gisa, asteburuan Santurtzikoaren

pareko zine-jaialdiak egiten dituzten antolakuntza-taldeen arteko topaketa bat egin zen Casa Torre jauregian. Oso arrakastatsua izan zen, batez ere kontuan hartzen badugu zein baldintza kaskarretan antolatu behar izan zen ekimena.

Azaroan abesbatzen topaketa egin zen San Jorge elizan. Oraingo honetan bi ekitaldi baino ezin izan ziren egin, elizako organoak lagunduta, tenor batek eta soprano batek egindako emanaldi bana. Horrela, lortu zen 41 urteko tradizioa ez etetea, gure herrian oso ekimen kultural maitatua da eta. Programatutako ekitaldiak ez ziren ohikoak izan, baina behintzat, musika egon zen Santurtzin. Berrito ere, ekitaldiak Lagun Zaharrak abesbatzarekin lankidetzan antolatu ziren.

SKAko BAZKIDEAK ETA EUREKIKO KOMUNIKAZIOA

SKAk iaz 2.654 bazkide izan zituen, 2019an baino % 7 gutxiago. Horren arrazoia urtetik urtera erabiltzaile-kopuruan egoten diren gorabehera izan liteke, eta batez ere, karneta “azken orduan” berrizteko askok duten ohitura. Kontua da 2020an “azken orduko” berrikuntza horiek ez zirela egin pandemia dela eta. Azken batean, 2020ko otsailetik kezka zen gizartean.

Edonola ere, karneta 2021eko apirilera arte luzatzea erabaki zenez, 2021era arte ez da pandemiak zerbitzu horren gainean izan zuen eragina guztiz igarriko. Hala ere, datuen arabera, badirudi ez dela edonolako gaia izango.

Komunikazioari dagokionez, SKAk ezin izan ditu herritarrekin komunikatzeko ohiko bitartekoak erabili. Adibidez, ez da esku-orririk edo aldizkaririk argitaratu eta beraz, ezin izan dira programazioa zabaltzeko erabili ohi diren bide horiek eskura izan, COVID-19aren prebentzio-protokoloak euskarri dibulgatzaile horiek ez erabiltzea gomendatzen baitu birusa zabaltzeko tresnak izan daitezkeelakoan. Horrek komunikazioa sare sozial eta euskarri digitalen bidez egitera eraman gaitu.

Bestalde, jarduera oso mugatuta egon denez, ezin izan da prentsaurrekorik egin. Publizitate-iragarkiak ere oso mugatuak izan dira horretarako erabiltzen diren baliabide ekonomikoak osasun-krisiak markatutako premiazko beste behar batzuetarako erabili behar izan direlako.

Azken batean, Autonomiadun Erakundearen sare sozialak, webgunea eta posta elektronikoa izan dira aurreko hilabeteetan egin ahal izan den programazioa herritarrei aditzera emateko bideak. Argi dago gizarte osoak bezala, SKAk oso garai gogorra bizi izan duela.

Santurtzin, 2021eko maiatzaren 3a
SERANTES KULTUR ARETOAREN ZUZENDARIA
Carlos Morán Arostegi